

Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2019KO IRAILAREN 24EAN  
GOIZEKO 10:00ETAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Lur Etxeberria Gurrutxaga.

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

**Ez dira bertaratu:** Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2019/07/23.**

Batzarkideek, 2019ko uztailaren 23ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- KALEZARKO BELMONTE KALEA 3AN ERABERRITUTAKO KONTZEPTZIOENEA  
ETXEARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: Sig. 409-02 / cod 3.01

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2000ko apirilaren 27an, PATXI SARASOLA EIZMENDI jaunari, Kalezarko Kontzeptzioenea etxea eraberritzeko udal baimena eman zion.

Orain berriz obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, eraberritutako etxearen lehen erabilera baimena eskatu du.

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia egin ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiuren Azkune andereak, 2019ko irailaren 4an honako txostena eman du:

**UA2018\_OH\_02**

**BULEGO TEKNIKOA  
Udal Teknikariak Alkate jaunari  
HIRIGINTZA**

**KONZEPZIO ETXEAREN ERABERRITZE OBRA AMAIERARI TXOSTENA**

ESKATZAILEA: Patxi Sarasola Eizmendi

ESKAERA DATA: 2018ko abenduaren 28

ESPEDIENTE ZENBAKIA: Sig. 409-02 / cod 3.01

**1. AURREKARIAK**

- 2000ko martxoaren 16an Patxi Sarasola Eizmendi jaunak Kontzeptzio-



Usurbilgo Udala

Enea Etxea Ordezkatzeko baimena eskatu zuen, horretarako Proiektua aurkeztuz.

- 2000ko apirilaren 27an Gobernu Batzordeak Kalezarreko Kontzepzio Enea ordezkatzeko obra baimena eman zion Patxi Sarasola Eizmendi jaunari.
- 2018ko abenduaren 28an interesatuak Obra Amaiera dokumentazioa aurkeztu du.
- 2019ko urtarrilaren 13an behean izenpetzen duen teknikariak bertaratzea egin du eta 2019ko urtarrilaren 24an ALDEKO txostena, honakoan izan ezik:
  - o ***“erdisotoan egikaritu den eraikigarritasuna ez da baimengarria, Udalak baimenik gabeko obrak egin izanagatik har litzakeen neurrien kalterik gabe (2/2006 Legearen arabera).”***
- 2019ko uztailaren 24an interesatuak baimena berraztertzea eskatu du.
- 2019ko irailaren 4an behean izenpetzen duen teknikariak bertaratzea egin du.

## 2. TXOSTENA

Aurrekarietan azaldu bezala, Patxi Sarasola Eizmendi jaunak Kontzepzio-Enea etxea ordezkatzeko egikaritzaren lehen erabilera baimena eskatu du. Hori dela-eta, behean izenpetzen duen teknikariak bertaratzea egin du.

Bertaratzean ikusi denaren arabera, aurreko txostenean erdisotoari buruz esaten zenaren inguruan egokitzapenak egin direla ikusi da, hala:

- Eraikuntza barrutik komunikazioa kendu da, ez du sarbiderik.
- Hutsunearen altuera 1,8m baino gutxiagokoa da, beraz, ez du eraikigarritasunik.

## 3. ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, KONTZEPZIO ENEA ETXEA ORDEZKATZEKO obra amaierari ALDEKO txostena ematen zaio, honakoa ohartarazten delarik: **behe solairu azpiko hutsunean ezingo da aprobetxamendurik egikaritu, ezta sarbiderik ere eta ezingo da jabego erregistroan inskribatu.**

Hauxe da behean izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobe oinarritutako besteren kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2019ko irailaren 4an.  
UDAL ARKITEKTOA  
HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA  
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune



Usurbilgo Udala

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** PATXI SARASOLA EIZMENDI jaunak, Kalezarko Belmonte kalea 3an eraberritutako Kontzeptzioenea etxeari lehen erabilera baimena ematea honako baldintzarekin: **behe solairu azpiko hutsunean ezingo da aprobetxamendurik egikaritu, ezta sarbiderik ere eta ezingo da jabego erregistroan inskribatu.**

**BIGARRENA:** Erabaki hau interesatuari ematea.

### 3.- 2018/2019 IKASTURTEAN EUSKARA IKASI DUTENENTZAKO DIRULAGUNTZAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

#### Ikusirik

2019ko ekainaren 4an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2018/19 ikasturtean euskara ikasi dutenek dirulaguntzak eskatzeko deialdia argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 24an hasi eta uztailaren 5ean amaitu zen.

Epea amaitu ondoren, guztira 37 eskaera jaso dira.

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak 2019ko abuztuaren 8an egindako bilkuran, ebazpen-proposamena egin zuen 2018/2019 ikasturtean euskara ikasi dutenentzako dirulaguntzen inguruan.

Ebazpen-proposamena abuztuaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, interesatuei hamar eguneko epea emanez alegazioak aurkezteko.


Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin behineko ebazpenaren berri eman da.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

#### Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (2017/07/18).
- 2018/19 ikasturtean euskara ikasi dutenek dirulaguntzak eskatzeko deialdia (GAO, 2019/06/04).
- Dirulaguntzei buruzko ebazpen proposamena (GAO, 2019/08/16).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** 2018/19 ikasturtean euskara ikasi dutenentzako diru-laguntza kopuru hauek behin betikoz onartzea eta ordainketak bideratzea.

	<b>Izen abizenak</b>	<b>Dirulaguntza</b>
1	Isabel Lopez-Quintana Herrero	558,00 €
2	Isabel Torres Lara	423,00 €
3	Ainara Bikondoa Pellejero	422,00 €
4	Felicidad Santana Rubio	445,00 €
5	Francisco Javier Espina Roman	270,00 €
6	Maidier Ruiz Zabala	445,00 €
7	Amaia Murugarren Merino	445,00 €
8	Patricia Fernandez Alvarez	100,00 €
9	Ana Maria Arostegi Usobiaga	423,00 €
10	Koro Aliri Aristeguieta	445,00 €
11	Mikel Delgado Caminero	445,00 €
12	Maialen Iñarra Arregi	566,00 €
13	Agustin Dominguez Marquez	141,00 €
14	Luis Jambrina Rodriguez	600,00 €
15	Maria Enriquez Barroso	600,00 €
16	Arantxa RabanoRubio	445,00 €
17	Marimar Estella Arranz	600,00 €
18	Maria Victoria Cobo Rodriguez	445,00 €
19	Joana Amezaga Velasco	571,54 €
20	Usue Zumeta Sanz	600,00 €
21	Maria Fernandez Delkader	600,00 €
22	Ane utrera Sanchez	187,00 €
23	Paki Navarro Guadix	72,36 €
24	Idoia Aranburu Leunda	600,00 €
25	Ramon Romera Arranz	478,35 €
26	Ramon Carro Luengo	445,00 €
27	Nuria Larrañaga Rubio	416,00 €
28	Estibaliz Pérez Bergara	600,00 €
29	Jose Miguel Aybar López	180,00 €
30	Jose Miguel Aybar López	420,00 €
31	Nora Galarraga Ibarгойen	195,00 €
32	Mercedes Navarro Ruiz	600,00 €



Usurbilgo Udala

33	Maribel Mena Azpillaga	105,00 €
34	Maribel Mena Azpillaga	430,49 €
35	Estibaliz Pérez Bergara	0,00 €
36	Mari Jose Martinez de Godos	600,00 €
37	Edison Martin Fernandez Bustamante	445,00 €
	<b>GUZTIRA</b>	<b>15.363,74 €</b>

**Bigarrena:** Dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4200.480.335.00.01 2019 (A 894/2019)

**Hirugarrena:** Kontuhartzaileari akordioaren berri ematea.

**Laugarrena:** Behin betiko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**Bosgarrena:** Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:10etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**